

HITZEN ORDENA ERABAKITZEKO FAKTOREAK

Suzuko Tamura

0. Sarrera

Orain bost urte, euskara ikasten hasi nintzenean, ez nekien ezer hizkuntza honetaz, hitzik ere ez. Hitzen ordenari dagokionez, hona etorri aurretik, Japonian, ipuin eredu bat irakurria nuen, Mitxelenak idatzi eta Shimomiyak japonieratua (Izui 1972), baina ez nuen erregelarik ikusi. Nahaste borrhatea iruditu zitzaidan euskarazko hitzen ordena.

Euskal Herrian, eguneroko bizitzan euskara entzun eta hitzeginez ikasten ari nintzen bitartean, konturatuz nindoan, hizkuntza honek gure japoniera eta ekialdeko beste hizkuntza askoren antzeko egitura duela, eta askotan japoniera bezalako hitzen ordena gertatzen dela, gainera; eta japoniera idatzian baino lagun arteko elkarrizketa informalean gertatzen diren hitzen ordenen antzekoak, ikusten direla euskaran. Orduan, zera esan beharko da: euskaran eta japonieran (eta ainueran, koreanoan,...) gertatzen diren hitzen ordena hauek hizkuntza-unibertsalarekin zerikusia izan behar dutela.

Lagun artean, hizketa errepikatu, probatu, batez ere hitzen ordenak probatu, lagunek zuzendu,... eta horrela nenbilenean, piskanaka piskanaka sortu zitzaidan «hizkuntza-zentzua», eta oinarrizko ordena eta kasu konkretuetan lan egiten duten ordena-aldaketa erregelak gero eta garbiago bereiztera zihoa-zen nire baitan.

Gai honi buruz, 1980.eko Abenduan eta hurrengo Urtarrilean Japoniako Waseda Unibertsitatean hitz egin nuen. Gero, lehenengo zatia japonieraz azaldu nuen bertako aldizkarian, eta bigarren zatiaren laburpena ere bai (Tamura 1981, 1983).

Hizketa konkretu batetan hitzen ordena konkretua sortzeko, hiru mailatako faktore daude:

- I Oinarrizko ordena
- II Egitura mailako ordena aldaketa: Egiturak sortzen duena
- III Estilistika mailako ordena aldaketa: hiztunaren asmo estilistikoak sortzen duena.

Noda-k (1982), gaztelania eta japonieraren arteko gonbaraketa kontrastibo bat eginda, lehena «egitura faktorea» deitzen du eta hirugarrena «informazio faktorea». Bigarrena ez du aipatzen berak.

Gaurko honetan, estilistika mailako ordena aldaketari (§3) zuzenduz, japoniera eta Asiako beste hizkuntza askotan ikusten diren antzeko ordena aldaketekin gonbaraketa batzu egin nahi ditut.

Informatzaileak:

Lan honetan aipatzen diren adibide perpaus gehienak, honako hauek eginak dira: jaiotzez bizkaierazko hiztunak eta nirekin batuaz hitz egiten dutenak. Haietariko bi zehatzago aipatuko ditut:

- (1) Gotzone Elu Elu: Ondarrutarra, emakumezkoa, 29-33 urtekoa, euskal irakasle
- (2) Josu Barrena Idigoras: Antzuolatarra, gizonezkoa, 23-27 urtekoa, euskal irakasle

Beste euskalkien hiztunak emandako adibideetan, oharra jarriko dut.

Hala ere, lan honetan aipatzen ditudan ordena aldaketari buruz dauden erregelari dagokienez, bizkaieraz ez ezik beste euskalkietan ere berdin berdin gertatzen dira, nahiz eta puntu txiki batzutan ezberdintasunak izan (Zuberoko euskalkiaz ezin dut hitz egin, ez baitut ezagutzen).

1. Oinarrizko ordena

1.1. Oinarrizko perpaus moldeak

Ondoko bost perpaus molde oinarrian. Holaxe da oinarrizko ordena, eta hau da, nire ustez, ordena ezmarkatua.

- | | | | |
|-----------|----------|------------|---------------------------|
| (1) NP | _____ | VP | _____ |
| | Maite | etorri da. | Maite dator. |
| (2) NP-ri | _____NP | VP | _____ |
| | Maite-ri | ideia ona | etorri zaio. ¹ |
| (3) NP-k | _____NP | VP | _____ |
| | Patxik | Maite | ikusi du. |

¹ *Idea ona* (subjetua) *Maiteri* (osagarria) *etorri zaio* (aditza) ordena markatua da. Beste adibide bat: *Neska hati gauza bat galdu zaio* (ezmarkatua), *Gauza bat neska hati galdu zaio* (markatua).

(4) NP-k ————— NP-ri ————— NP ————— VP
 Patxi-k Maite-ri liburua eman dio.

(5) NP₁ ————— NP₂ ————— VP
 Bazkaria ona izan da.

Ondoko perpaus moldea, (3)-an (5) txertatuz egiten da:

(6) NP-k ————— NP₁ ————— NP₂ ————— VP
 Patxi-k ilea zuria du.

(3) Patxi-k (zerbait) du.

(5) Ilea zuria da.

1.2. AHAL IZAN, BEHAR IZAN, NAHI IZAN, e.a.

(1) NP ————— VP
 Ni etorri ahal izan naiz.

(2) NP-k ————— NP ————— VP
 Maite-k etorri ahal izandu.

(3) NP-k ————— NP ————— VP
 Patxi-k Maite ikusi behar izandu.

(4) NP-k ————— NP-ri ————— NP ————— VP
 Patxi-k Maite-ri liburua eman nahi izan dio.

1.3. AL, OTE, OMEN, BA (baldinba), BAIT, e.a. (proklitiko)

(1) Maite etorri *al*-da?

(2) Patxi-k Maite ikusi *ote*-du?

(3) Patxi-k Maite-ri liburua eman *omen*-dio.

(4) Maite etortzen *ba*-da.

(5) Maite etorri *bait*-da (→ baita).

Oharra: 4 eta 5 ez dira perpaus lokabeak, baina proklitiko hauek besteren leku berean sartzen dira.

1.4. Adberbio sintagma

Adberbioa, oinarrian, ardatzaren aurrean ipintzen da.

Gradua, kantitatea:

(1) *Asko* pozten naiz.

Adjetiboa edo adberbioa alderazten duen gradu – edo indar– adberbioa:

(2) *Nahiko* ondo hitz egiten du.

Moduzkoa:

(3) *Euskaraz* ondo hitz egiten du.

Denbora, lekua adierazteko adberbioa besteak baino aurrerago jartzen da, hau da, lehenbizi denbora, gero lekua, eta azkenik beste adberbioak.

(4) *Uztailerarte hemen geratuko gara.*

Aditz sintagma (VP)-ren aurrean elementu bat baino gehiago dagoenean (NP-ri, NP, Adb, e.a.), hiztunaren asmo estilistikoak eraginik (§3), aldaketa gertatzen da sarri. Denbora, lekua eta modua askotan perpausaren bukaeran aurkitzen dira.

1.5. *Asiako hizkuntzetan*

Oinarrizko moldeetan, bai japonierak, nola ainuerak, koreanoak edo hizkuntza altaikoeak, euskaran ikusten den hitzen ordena ia berdina dute. Bakarrik izen sintagma (NP)-ren barruko ordena da euskaran ematen denaren ezberdina. Asiako hizkuntza hauetan, atributiboa beti ardatzaren aurrean jartzen da, adjetiboa, erakuslea, izena + atzizkia, eta edozer atributibo.

Japonierazko adibide batzu:

(1) Aiko-ga ki-ta.

Aiko etorri da.

Aiko: emakumezkoaren izena
Shigeru: gizonezkoaren izena
ga: subjeto marka
o: objektu marka
wa: mintzagai marka

(2) Aiko-ni ii kangae-ga ukan-da.

«Aiko-ri ona ideia etorri zaiou».

(3) Shigeru-ga Aiko-o mi-ta.

«Shigeruk Aiko ikusi du».

(4) Shigeru-ga Aiko-ni hon-o age-ta.

«Shigeruk Aiko-ri liburua eman dio».

- (5) Shokuji-ga oishi-katta.
«Janaria ona izan da».
- (6) Shigeru-wa kaminoke-ga shiro-i.
«Shigeruk ilea zuria du».

2. Egitura mailako ordena aldaketa

2.1. Ezezkoetan

II erregela: Ipin *ez* aditz laguntzailearen (edo aditz sintetikoaren) aurrean (Aditz sintetikoa, *ez* sartzea baino lehenago egiten da).

- (1) Maite *ez* dator.
- (2) Patxik Maite *ez* du ikusi.

III erregela: Trukatu aditza eta [*ez* (+proklitiko) + aditz laguntzailea (edo aditz sintetikoa)].

- (3) Patxik Maite *ez du* ikusi.

Gero, estilistika mailako aldaketak (§3) eraginez, hitzen ordena ezberdinak sortzen dira hainbat perpaus konkretutan:

- (4) *Ez dator* Maite.
- (5) Patxik *ez du* Maite ikusi.
- (6) Patxik *ez du* ikusi Maite.
- (7) Maite *ez du* ikusi Patxik.
- (8) *Ez du* Maite ikusi Patxik.

[*Ez* (edo *ba* -baiezkoa-) (+proklitiko) + aditz laguntzaileak (edo aditz sintetikoak)] elkarrekin bat egiten dute aditz laguntzaile multzoa lortuz. *Ahal izan, behar izan*, e.a. (§1.2) multzo honen aurrean (*ez* edo *ba*-ren aurrean) ipintzen dira.

- (9) Patxik mendira *joan nahi* [*ez omen du*]
→ Patxik mendira [*ez omen du*] *joan nahi*
- (10) Patxik mendira *joan nahi* [*ez omen du*]
→ Patxik mendira *joan* [*ez omen du*] *nahi*.

Gero estilistika mailako aldaketaren ondorio bezala:

- (11) Patxik [*ez omen du*] *joan nahi* mendira.
- (12) Patxik [*ez omen du*] *nahi* mendira *joan*.
- (13) Patxik [*ez omen du*] mendira *joan nahi*.

11, 9-tik aldatzen da, eta 12, 10-tik. 13, berriz, bai 9-tik eta bai 10-tik alda daiteke.

Ahal izan aditzaren kasuan erregela berezi bat dakusagu Hegoaldeko euskalkietan: aditz laguntzailearen aurrean *ez* ipini beharrean, *ahal* hori *ezin* formaz trukutzen da.

2.2. Sintagma atributiboan

Aditza bukaeran dago, oinarritzko ordenan bezala.

Perpausaren atzean, hau da, aditz laguntzailearen (edo aditz sintetikoaren) atzean *-n* (erlatibo marka, edo «relative marker», de Rijk-ek (1972, 1978) dioenez) ipintzen da. «Erlatibo forma», japonieraz, koreanoz, hizkuntza altai-koetan, eta eskimal hizkuntzan ere aurkitzen da. Japonierazko gramatikan «atributibo forma» deitzen da, eta hizkuntza altaiakoen gramatiketan, «adjetibo aditza».

Aintzineko japonieran:

Bukaera forma	<i>uk-u</i>	«hartzen du»
Atributibo forma	<i>uk-u-ru</i>	«hartzen duen»

Gaurko japonieran, galdu egin da bi forma hauen arteko bereizketa, eta bat egin da. *Uke-ru* esaten dugu bi kasuetan. Kopulak (euskarazko *izan* bezalako) bakarrik du bereizketa hau.

- (1) Patxik ikusi duen neska
← [Patxik neska_i ikusi du]_n neska_i
- (2) Maite ikusi duen mutila
← [Mutila_i-k Maite ikusi du]_n mutila_i
- (3) Patxik Maite ikusi duen kalea
← [Patxik kalea_i-n Maite ikusi du]_n kalea_i
- (4) Patxik Maite ikusi ez zuen eguna
← [Egun harta_i-n Patxik Maite ikusi ez zuen]_n eguna_i
cf. Egun hartan Patxik ez zuen Maite ikusi.

Sintagma atributiboa beti ardatzaren aurrean jartzen da. Japonieraz, aineraz, koreanoz, hizkuntza altai-koetan ere berdin. Hizkuntza hauetan, sintagma atributiboa ez ezik, adjetibo, erakusle, zenbatzaile eta edonolako atributiboak ardatzaren aurrean ipintzen dira. Puntu honetan ez dira euskararen antzekoak.

2.3. Adberbio sintagmetan

... *dadin*, ... *dezan*, ...

Bai oinarrizko ordenan eta bai aldatutakoan ere agertzen da.

Japonieraz: ik-u *yoo-ni* «joan dadin», mi-ru *yoo-ni* «ikus dezan», mi-na-i *yoo-ni* «ikus ez dezan»

- (1) Ugari itzazu guregan sinismena eta maitasuna, iñungo tentaldirik itzal ez dezan zure graziak gure biotzetan erne zuen sua. (G)

Adberbio sintagma «iñungo ... sua», ezezko aldaketa gabeko ordenatik egi-na bada ere, adberbio sintagma horretan, estilistika mailako ordena-aldaketa gertatzen da: «iñungo tentaldirik itzal ez dezan» (subjetua + aditz multzoa), batez ere esan nahi dena, hasieran doa, eta objetua «zure graziak gure biotzetan erne zuen sua» atzean, bigarren faktoreak (§.2) lan eginez.

...-*la* (-*larik*), ...-*lako* (zergatik?); ...bait-..., ...(*baldin*) ba-..., ...

Bai oinarrizko ordenan eta, bai aldatutakoan ere agertzen da.

- (2) Patxik Maite ikusi ez zuelako
← [Patxik Maite ikusi ez zuen] -lako
- (3) Patxik ez zuelako Maite ikusi
← Patxik ez zuen Maite ikusi] -lako

...-*nean*, ...-*netik*, ...-*nez*, ...

Atributibo forma (adjetivo, erakusle, zenbatzaile, ...baita ere [perpauza + -*n*]), ardatza agertzen ez denean ere, izen sintagma bezala joka dezake perpau-san. [Perpauza + -*n*]-ren atzean ere adberbio-kasu atzizki (-*n*, -*tik*, -*z*, e.a.) bat ipiniz adberbio sintagma bat egin daiteke. Holako adberbio sintagmetan, normalki, atzizki hori [aditz laguntzailea + -*n*]-rekin batera bukaeran jartzen da.

Adberbio sintagma (denbora, lekua, modua arrazoia, helburua,...) perpau nagusiaren aurrean nahiz atzean agertzen da estilistikak (§3) erabakitzen duen legez.

Aditzari atzizki (edo enklitiko) bat ipiniz adberbio sintagma egitea, japonieraz eta sortaldeko beste hizkuntza askotan ere aurki dezakegu. Honelako aditz formek (*zeturrela*, *joan nintzelarik*, *ikusi duelako* bezala erabiltzen diren formek) japonierazko gramatikan «adberbio forma» izena hartzen dute, hizkuntza altaiokoen gramatikan «adberbio aditza».

2.4. Zeharkako aipamenetan

Baiezkoetan adberbio atzizki gisa -*la* ipintzen da eta ezezkoetan -*nik* (-*n-ik*) gehienetan, gramatika liburu eta metodoetan esaten den bezala, baina

batzutan *-la* ere agertzen da ezezkoetan, eta hitz egiten duenaren asmo edo sentimendu ezberdina ikusten da. Baina nik ez dut oraindik zehazki azertu puntu hau, horregatik ez naiz gai honetan sartuko gaur.

Aipamen sintagma, bai ordena aldaketa baino lehenagoko formatik, eta bai geroagokotik egin daiteke.

- (1) Patxi-k Maite ikusi zuela uste dut.
← [Patxik Maite ikusi zuen] -la uste dut.
- (2) Patxik Maite ikusi ez zuela uste dut.
← [Patxik Maite ikusi EZ zuen] -la uste dut.

Adibide hauetan, ezezko ordena aldaketa gabeko oinarrizko egituratik egiten da aipamen sintagma.

- (3) Patxik ez zuela Maite ikusi uste dut.
← [Patxik ez zuen Maite ikusi]-la uste dut.

Adibide honetan, aipamen sintagma ezezko ordena-aldaketa eta estilistika mailako ordena-aldaketa gertatu ondoren egin da.

- (4) Ez dut uste Patxik Maite ikusi zuenik.
← Ez dut uste [Patxik Maite ikusi zuen]-ik.
- (5) Uste dut Patxik Maite ikusi zuela.
← Uste dut [Patxik Maite ikusi zuen]-la.
- (6) Uste dut Patxik ez zuela Maite ikusi.
← Uste dut [Patxik ez zuen Maite ikusi]-la.
- (7) Uste dut Patxik Maite ikusi ez zuela.
← Uste dut [Patxik Maite ikusi ez zuen]-la.
- (8) Patxik Maite ikusi zuenik ez dut uste.
← [Patxik Maite ikusi zuen]-ik ez dut uste.

Aipamen sintagma, bai perpaus nagusiko aditz sintagmaren (uste dut, esan du, ez dut uste, ...) aurrean eta bai atzean agertzen da. Informatzaile askok dioenez, perpaus nagusia ezezkoa denean (ez du esan, ez dut uste,...), normalki aipamena aditz sintagmaren atzean ipintzen da, eta perpaus nagusia baiezkoa denean (esan du, uste dut,...), aipamena aditz sintagmaren aurrean jartzea (1-3) politagoa eta jatorragoa da. Gipuzkera darabilen informatzaile batek ere berdin esaten du. Baina alderantzizko ordena ere sarritan entzuten da, batez ere baiezkoetan 5-7. Liburuetan ere edonon ikus daiteke, eta lagunen eskutitzetan ere guztiz arrunta da. Itsusiagoak ote dira (5-7) perpausak? Baliteke, euskaldunek (bertoko hiztunek) horrela bait diote. Baina euskara polit polita dutenek ere holako «alderantzizko ordena» erabiltzen dute askotan, bai elkarrizketan eta bai idazterakoan ere. Nire ustez, hau estilistika mailako ordena aldaketa (§3) da. Perpaus bat egoera eta testuinguru gabe ikustean (edo entzutean),

egoera arruntenetan edo sinplenetan gertatzen den ordena naturalago eta jatorrago iruditu ohi zaigu, eta beste ordenak arraroago. Baina egoera eta testu-inguruan ikusten badituzue «alderantzizko» ordenako perpausak, horiek ere politak eta jatorrak irudituko zaizkizuela uste dut. Esate baterako, perpaus haue-
tan «nik» subjetu jartzen badugu, nola izango da?

(9) Nik, Patxik Maite ikusi zuela uste dut.

(10) Nik uste dut Patxik Maite ikusi zuela.

Edo hirugarren pertsonarekin:

(11) Koldok Patxik Maite ikusi zuela esan du.

(12) Koldok esan du Patxik Maite ikusi zuela.

Aipamen luzeagoarekin:

(13) Koldok Patxik joan zen ostiral arratsaldean Bilboko alde zaharrean Maite, Edurne, Karlos eta beste lagun batzu ikusi zituela esan du.

(14) Koldok esan du Patxik joan zen ostiral arratsaldean Maite, Edurne, Karlos eta beste lagun batzu ikusi zituela Bilboko alde zaharrean.

13 gramatikaldago, baina ez da hain erreza ulertzeko. Horregatik estilistika mailako ordena –aldaketa gertatzen da normalki holako kasuetan. 14 aldatutako ordenaren adibide bat da. Beste ordena batzu ere posible dira. Nik ezin dut esan zein ordena den politena, zeuek ikus.

Japonieraz nola den ikusiko dugu:

(1)	Shirgeru-wa Shigeruk	Aiko-o Aiko	mi-ta-to ikusi zue-la	omo-u uste dut
-----	-------------------------	----------------	--------------------------	-------------------

(2)	Shigeruk-wa Shigeruk	Aiko-o Aiko	mi-na-katta ikusi	to omo-u ez zue-la	uste dut
-----	-------------------------	----------------	----------------------	-----------------------	----------

3 -ren ordena ez da posible (erabat ezgramatikala) japonieraz. 4-7-ren ordena ere, japonieraz ez da normala.

(8)	Shigeru-ga Shigeruk	Aiko-o Aiko	mi-ta -to wa ikusi zue-nik	omowa-na-i uste ez dut
-----	------------------------	----------------	-------------------------------	---------------------------

10-ko ordena, japonieraz ezgramatikala da, eta idazterakoan eta hizketa formalean ez da erabiltzen, baina lagun arteko elkarrizketa informalean ohartu gabe esaterakoan gertatu ohi da. Holako adibideei «I» marka ipiniko diet. Ohartu behar duzue perpaus horiek gaizki eginak bezala ikusten ditugula jopardarrok, nahiz eta geuk maiz esan.

(10)	^I Watashi-wa Nik	omo-u-yo, uste dut	Shigeru-ga Shigeruk	Aiko-o Aiko	mi-ta-tte. ikusi due-la.
------	--------------------------------	-----------------------	------------------------	----------------	-----------------------------

yo: hizketako partikula bat; *tte*: hizketa informalean *to*-ren ordeztan erabiltzen den partikula, «-la».

- | | | | | | |
|------|-------------------------------------|--------------------------------------|---------------------------|-----------------------------------|--------------------------------------|
| (11) | Hiroshi-wa,
Hiroshik, | Shigeru-ga
Shigeruk | Aiko-o
Aiko | mi-ta-to
ikusi zue-la | it-ta.
esan du. |
| (12) | ^l Hiroshi-ga
Hiroshik | it-ta-yo,
esan du | Shigeru-ga
Shigeruk | Aiko-o
Aiko ikusi | mi-ta-tte.
zue-la. |
| (13) | Hiroshi-wa,
Hiroshik, | Shigeru-ga
Shigeruk | senshuu-no
joan zen | kin'yoobi-no
ostirale-ko | gogo
arratsaldean |
| | Bilbao-no
Bilbo-ko | Shitamachi-de
Alde Zahar-
rean | Aiko-to
Aiko eta | Michiko-to
Michiko eta | Tamotsu-to
Tamotsu eta |
| | sono hoka
beste | nannin-ka-no
zenbait | tomodachi-o
lagun | mi-ta-to
ikusi zue-la | it-ta.
esan du. |
| (14) | Hiroshi-ga
Hiroshik | it-ta-yo,
esan du, | Shigeru-ga
Shigeruk | senshuu-no
joan zen | kin'yoobi-no
ostirale-ko |
| | gogo Aiko-to
arratsalde | Aiko-to
Aiko eta | Michiko-to
Michiko eta | Tamotsu-to
Tamotsu eta | sono hoka nannin-ka
beste zenbait |
| | tomodachi-o
lagun | mi-ta-tte,
ikusi zue-la | Bilbao-no
Bilbo-ko | Shitamachi-de.
Alde Zaharrean. | |

Zehargalderetan, atributiboetan (erlatiboetan) bezala, *-n* galdera konplementatzaile (de Rijk 1972: «Wh-complementizer») ipini behar da, eta, de Rijk-ek dioen bezala, erlatibo markak eta galdera konplementatzaile honek, azentuan ere forma berdina dute.

Hitzen ordenari dagokionez, adierazpen perpausari buruz esandako gauza berbera esan daiteke.

- (15) (Ea) Patxik Maite ikusi zuen (ala ez) galdetuko diot Koldori.
← (Ea) [Patxik Maite ikusi zuen]-n (ala ez) galdetuko diot Koldori.
- (16) Ez dakit (ea) Patxik Maite ikusi zuen (ala ez).
← Ez dakit (ea) [Patxik Maite ikusi zuen]-n (ala ez).
- (17) Galdetuko diot Koldori (ea) Patxik Maite ikusi zuen (ala ez).
← Galdetuko diot Koldori (ea) [Patxik Maite ikusi zuen]-n (ala ez).
- (18) (Ea) Patxik Maite ikusi zuen (ala ez) ez dakit.
← (Ea) [Patxik Maite ikusi zuen]-n (ala ez) ez dakit.

Japonieraz:

- (15) Shigeru-ga Aiko-o mi-ta-ka (doo-ka). Hiroshi-ni kii-te mi-yoo.
 «Shigeruk Aiko ikusi zuen-n (nola den) Hiroshi-ri galdetuko diot»

Ikusten den bezala, aditz multzoa perpausaren azkenean jartzen da.

- (16) Shiranai-yo, Shigeru-ga Aiko-o mi-ta-ka (dco-ka)
 «Ez dakit Shigeruk Aiko ikusi zue-n (nola den)»
- (17) ¹Kii-temi-yoo, Hiroshi-ni, Shigeru-ga Aiko-o mi-ta-ka.
 «Galdetuko Hiroshi-ri, Shigeruk Aiko ikusi zue-n»
 diot (doo-ka).
 (nola den)
- (18) Shigeru-ga Aiko-o mi-ta-ka (doc-ka) shiranai
 «Shigeruk Aiko ikusi zue-n (nola den) ez dakit»

Beste ordena batzu badira baina gaurkoan aski dela uste dut.

Aipamen sintagma (...-la), -ko atzikia hartuta atributiboa egiten denean, [aditz sintagma + -la-ko] perpaus horren bukaeran jartzen da, §2.2 atalean esan bezala, «sintagma atributiboetan aditz sintagma bukaeran».

- (19) Ni hortik nembilelako ametsa (Nafarroa).
 ← [Ni hortik nembilen]-la-ko ametsa.
- (20) Beste erremediorik ez dagoelako eritzia.
 ← [Beste erremediorik ez dago]-la-ko eritzia.
 Cf. Ez dago beste erremediorik.

Japonieraz:

- (19) Watashi-ga soko-o arui-te i-ta-to i-u yume
 Ni hor-tik nembile-la esaten duen ametsa
 ... arui-te i-ta-to-no yume ere gramatikal da, hizkuntza
 nembile -la-ko ametsa

idatzian erabil daiteke. Elkarrizketan, -to-no-ren ordez -to i-u erabiltzen da normalki.

- (20) Hoka-ni hoosaku-ga na-i-to i-u iken
 «Bestean erremedioa ez dagoe-la esaten duen eritzia»
 ...na-i-to-no iken
 ez dagoe-la-ko eritzia

3. Estilistika mailako ordena aldaketa

Hau da hitz egiten duenaren asmo edo sentimenduak sortzen duena. Azken urte hauetan, gai honek euskalarien interesa bereganatu du eta jadanik lan asko azalduak dira (Altube 1929, Arejita 1978, 1980, Donzeaud 1972, Goenaga 1978, 1980, Hotta 1975, de Rijk 1969, 1972, 1978, Txillardeggi 1978, Akesolo 1980, Irigoyen 1980, Mitxelena 1981, Wilbur 1981). Hala ere, orain arteko lanetan, hizkuntzalarien ikuspegiak ondoko bi faktoreetan mugatua dirudi:

- a. Galdegaia aditzaren aurrean.
- b. Mintzagaia perpausaren hasieran (ez beti hala ere).

Baina egoera eta testuinguru konkretuetan esandako perpaus pila bat bildu, egoera, testuingurua eta hiztunaren asmo eta sentimendua kontutan hartu, horrela aztertu dudaren ondorioz, nik esango nuke ondoko hiru faktore daukela:

- i. Galdegaia aditzaren aurrean
- ii Batez ere adierazi nahi dena hasieran, osatzekoa gero, gehitzekoa atzean
- iii Sarrera aurrean.

3.1. Galdegaia aditzaren aurrean

Jadanik ondo ezaguna denez gero ez daukagu zehatz-mehatz hitz egin beharrik.

- (1) Patxik Maite ikusi zuen.
(Nor?)
- (1-1) Patxik *Maite* ikusi zuen.
- (1-2) *Maite* ikusi zuen Patxik.

Zein ordena gertatuko den, 1-1 ala 1-2, bigarren eta hirugarren faktoreek (§3.2, §3.3) erabakitzen dute. Gauza bera beheko adibideetan. Informatzaile batek dio *Nor ikusi zuen Patxik?* galderari erantzuteko, *Patxik* hori hasieran jartzea egokiagozat jotzen duela 1-2 baino 1-1 hobetua izanik. Hori ere hirugarren faktoreak duen eraginaren ondorioz.

- (Nork?)
- (1-3) Maite *Patxik* ikusi zuen.
- (1-4) *Patxik* ikusi zuen Maite.
- (2) Patxik Maiteri liburua eman dio.

(Zer?)

- (2-1) Patxik Maiteri *liburua* eman dio.
- (2-2) Patxik *liburua* eman dio Maiteri.
- (2-3) Maiteri *liburua* eman dio Patxik.
- (2-4) *Liburua* eman dio Maiteri Patxik.

(Nori?)

- (2-5) Patxik *liburua Maiteri* eman dio.
- (2-6) Patxik *Maiteri* eman dio *liburua*.
- (2-7) *Maiteri* eman dio *liburua* Patxik.
- (3) Patxik *Uztailean* oporrak hartuko ditu.
- (3-1) *Noiz* hartuko ditu oporrak Patxik?
- (3-2) Patxik *noiz* hartuko ditu oporrak?

3.2 baino 3-1 arruntagoa da, bigarren faktorearen (§3.2) eraginez. Hirugarren faktoreak *Patxik* hitza (mintzagaia) aurrean jartzen duenean (§3.2.1), 3-2-ren ordena sortzen da.

(Noiz?)

- (3-3) Patxik oporrak *Uztailean* hartuko ditu.
- (3-4) Patxik *Uztailean* hartuko ditu oporrak.
- (3-5) *Uztailean* hartuko ditu oporrak Patxik.

EUSKALDUNTZEN euskal ikasbidearen 3. tomoan, «Hitzak non jarri behar diren» delako azalpen mesedegarria aurkitzen da, gramatika lanetan datozen deskribapenak batean bilduz eta laburtuz (152-153 horrialdeetan):

HITZAK NON JARRI BEHAR DIREN

Zer esan dizu?

Hori esan dit Josek gaur
 Josek hori esan dit gaur
 Gaur Josek hori esan dit
 Gaur hori esan dit Josek
 Eskolara joan behar dudala esan dit Josek gaur

Nork esan dizu?

Josek esan dit hori gaur
 Josek esan dit gaur hori
 Gaur Josek esan dit hori
 Hori gaur Josek esan dit
 Herri honetan bizi den gizon horrek esan dit
 hori gaur

Zer egin dizu Josek?

Josek esan egin dit hori
 Esan egin dit hori Josek
 Hori esan egin dit Josek
 Josek hori esan egin dit

Esan dizu Josek?

Esan dit hori Josek
 Esan dit Josek hori
 Josek hori, esan dit
 Hori Josek, esan dit
 Ez dit ezer esan Josek
 Josek ez dit ezer esan
 Josek ez dit esan ezer
 Ez dit Josek ezer esan

Noiz esan dizu?

Josek gaur esan dit hori
 Hori gaur esan dit Josek
 Gaur esan dit Josek hori
 Gaur esan dit hori Josek
 Etxera etorri denean esan dit hori Josek

Ba dakizue?

Gaur ba dakigu hori
 Ba dakigu gaur hori
 Hori gaur ba dakigu
 Gaur hori ba dakigu

KONTUZ: Esannahi nagusia adierazten duen hitza edo hitz multzoa GALDEAGAIA deitzen da. GALDEGAIA aditzaren aurrean jarri behar da. Ezezko esaldietan, EZ hitza bera izaten da ia beti GALDEGAIA. GALDEGAIARI indar gehiago emateko, batzuek, baiezko esaldietan ere aditz laguntzallearen aurrean jartzen dute hura. Adibidez:

Aitak du ontzia leihotik jaurtiki
 Aitak leihotik du ontzia jaurtiki
 Aitak ontzia du leihotik jaurtiki

Azalpen hau, zati gehienetan zuzen eta egokia da, bakarrik «galdegaia»-ren definizioa ez datorrela hain garbi, eta baita exajeratu samarra dela: adibide perpausak sortzen dituzten galderak honelakoak izan behar dute (goitik behera):

Zer esan dizu Josek gaur?
 Nork esan dizu hori gaur?
 Noiz esan dizu hori Josek?
 ?
 Hori esan dizu Josek?
 (Ezer esan dizu Josek?)
 Gaur hori ba dakizue?

Galdegaia aditza bera denean, *egin* eransten omen da (Altube, Txillardegi). Hobeto esanda, «aditza informazio berri bakarra denean» esan liteke. Horrez gain, aditz zati horri pisua ematen zaio *egin* erabiltzean, hots, entzuleak uste ez baldin badu ere hori benetan gertatu (edo gertatzen, gertatuko) dela esan nahi du hiztunak. «Zer egin...?» galderari erantzutean ez da beti *egin* agertzen aditzaren atzean, eta aditza erantzun bakarra denean ere ez beti, askotan agertzen bada ere.

«Ezezko perpausetan, EZ hitza bera izaten da ia beti GALDEGAIA» dio *Euskalduntzen* metodoak. Hola ez den adibide batzu:

Klasean, «Ez dut ulertzen» esan nuen nik. Orduan

(4) Zer ez duzu ulertzen?

esan zuen irakasleak. Perpaus honetan, *zer* da galdegaia, noski. «Ezin dut» esan nuenean, irakasleak.

- (5) *Zer ezin duzu?*
esan zuen. Perpaus honetan ere *zer* da galdegaia.
Galdera horri, honela erantzun litzaioke:
- (6) Galdera honi ezin diot erantzun.
- (7) Ezin diot galdera honi erantzun.

Erantzun hauetan, *galdera honi erantzun* da galdegaia. 6 eta 7-ren ordenak, bigarren eta hirugarren faktoreek (§3.2, §3.3) sortzen dituzte.

Japonieraz:

- | | | | | |
|-------|---|------------------------------|-----------------------|-------------------------|
| (1) | Shigeru-ga
Shigeruk | Aiko-o
Aiko | mi-ta
ikusi zuen. | |
| (1-1) | Shigeru-wa
Shigeruk | <i>Aiko-o</i>
<i>Aiko</i> | mi-ta.
ikusi zuen. | |
| (1-2) | ^I <i>Aiko-o</i>
<i>Aiko</i> | mi-ta-n
ikusi zuen | da-yo, | Shigeru-wa
Shigeru-k |

(1-2), beste egitura bat da. Ordena gramatikala: *Shigeru-wa Aiko-o mi-ta-n da-yo*. *N(mi-ta-n)*: nominalizatazaila; *da* kopula.

Ohartu behar dugu, *ga* (subjetu marka)-ren ordeaz *wa* (mintzagai marka) agertzen dela.

- | | | | | |
|-------|--|-------------------------------|-----------------------------------|--|
| (1-3) | Aiko-wa
«Aiko | <i>Shiregu-ga</i>
Shigeruk | mi-ta
ikusi zuen» | |
| (1-4) | ^I <i>Shigeru-ga</i>
«Shigeruk | mi-ta-n
ikusi zuen | da-yo, | Aiko-o
Aiko» |
| (2-1) | ^I <i>Shigeru-wa</i>
«Shigeruk
«Shigeruk | Aiko-ni
Aikori
liburua | <i>hon-o</i>
liburua
Aikori | age-ta
eman dio»
eman dio» |
| (2-2) | ^I <i>Shigeru-wa</i>
«Shigeruk | <i>hon-o</i>
liburua | age-ta-n
eman dio | da-yo,
Aiko-ni
Aikori» |
| (2-3) | ^I <i>Aiko-ni-wa</i>
«Aikori | <i>hon-o</i>
liburua | age-ta-n
eman dio | da-yo,
Shigeru-wa
Shigeruk» |
| (2-4) | ^I <i>Hon-o</i>
«Liburua | age-ta-n
eman dio | da-yo | Aiko-ni
Aikori
Shigeru-wa
Shigeruk» |
| (2-5) | Shigeru-wa
Shigeruk | hon-o
liburua | <i>Aiko-ni</i>
Aikori | age-ta
eman dio |
| (2-6) | ^I <i>Shigeru-wa</i>
«Shigeruk | <i>Aiko-ni</i>
Aikori | age-ta-n
eman dio | da-yo,
hon-o
liburua» |

(2-7)	^I <i>Aiko-ni</i> «Aikori	age-ta-n eman dio	da-yo,	hon-o liburua	Shigeru-wa Shigeruk»
-------	--	----------------------	--------	------------------	-------------------------

Japonieraz, beste ordena bat ere erabiltzen da galdegaia NORI (Aiko-ni) denean, aurrera goazen bezala ikusiko dugu. Doinuak erakusten du galdegaia, hots, NORI (Aiko-ni) zatia gorago ahozkatzen da. Ordena hau gramatikal da, eta agian goikoa baino gehiago erabiltzen da.

(2-8)	Shigeru-wa <i>Aiko-ni</i> hon-o age-ta(-n da-yo) «Shigeruk Aikori liburua eman dio» =Shigeruk Aikori eman dio liburua
-------	---

(3)	Shigeru-wa «Shigeruk	shichigatsu-ni Uztailean	yasumi-o oporrak	tor-u hartuko ditu»
(3-1)	^I <i>Itsu</i> «Noiz	tor-u-no hartuko ditu	yasumi-o, oporrak	Shigeru-wa? Shigeruk»
(3-2)	^I Shigeru-wa «Shigeruk	<i>itsu</i> noiz	tor-u-no, hartuko ditu	yasumi-o? oporrak?»

Hizketa informalean beste ordena bat ere erabiltzen da, eta hau (3-1) eta (3-2) baino gehiagotan, jatorragoa baita.

(3-1-2)	^I <i>Itsu</i> «Noiz	yasumi-o tor-u-no, Shigeru-wa? oporrak hartuko ditu	Shigeruk?»
(3-2-2)	Shigeru-wa «Shigeruk	<i>itsu</i> noiz	yasumi-o tor-u-no? oporrak hartuko ditu?

3-2-2-ren ordena da polit eta jatorrena japonieraz. Hizketa formalean eta idazterakoan ere erabiltzen den ordena da. Erabat gramatikala da, formalago egiteko atzizki, partikula edo holako hitz batzu gehitu behar bazaizkio ere.

Beste hitzekin errezagoa da 3-1 eta 3-2-ren ordenak egitea (bakarrik hizketa informalean, noski).

(3-1-3)	^I <i>Itsu</i> «Noiz	mi-ta-no, ikusi du	Aiko-o, Aiko	Shigeru-wa? Shigeruk?»
(3-2-3)	^I Shigeru-wa «Shigeruk	<i>itsu</i> noiz	mi-ta-no, ikusi du	Aiko-o? Aiko?»

3-1-2 eta 3-2-2-ren ordena ere erabiltzen da:

(3-1-4)	^I <i>Itsu</i> «Noiz	Aiko-o Aiko	mi-ta-no, ikusi du	Shigeru-wa? Shigeruk?»
(3-2-4)	Shigeru-wa «Shigeruk	<i>itsu</i> Aiko-o noiz Aiko	mi-ta-no? ikusi du?»	

3-2-4 da jatorrena, batez ere idazterakoan eta hizketa formalean, hitz batzu gehiturik.

Hizketa informalean, lau ordena hauek (3-1-3, 3-2-3, 3-1-4, 3-2-4) erabiltzen dira, nahiz eta lehenengo hiru gramatikala ez izan.

Ikusten duzuen bezala, 3-2-2 eta 3-2-4, galdegai-ordena aldeketan gabeko ordenan daude. Japonieraz (ainueraz, koreanoz, mongolieraz,...) galdegaiak ez du euskaraz adinako zereginik. Hizkuntza haietan, erregela indartsuagoa da subjektu, objektu eta adberbioak aditza baino lehenago (ezkerrerrago) ipintzea. Hala ere, lagun arteko elkarrizketa informalean, ordena aldaketa libreagoa gertatzen da, eta euskaran dagoen «galdegaia aditzaren aurrean» delako erregelak ere eragiten du askotan.

Hungarierak, hitzen ordena japonierak, ainuerak, koreanoak eta hizkuntza altaikoez baino libreagoa du, eta euskaraz gertatzen den bezalako «galdegai-ordena-aldaketa» ere gertatzen da uraliar hizkuntza honetan. Orain arte ez dut ikusi gai honi buruzko dezkripziorik hungariera gramatika liburuetan, baina aztergarria dela deritzot.

3.2. *Batez ere adierazi nahi dena hasieran, osatzekoa gero, gehitzekoa atzean.*

Euskaraz, gauzarik garrantzitsuenez hasten da perpausa. «Gauza garrantzitsu» horrek esan nahi du «hiztunak batez ere adierazi nahi duen gauza». Hau askotan barruan galdegaia daraman hitz multzo bat izaten da, eta beste batzutan galdegaiaren zati bat, baina ez du beti galdegaiarekin zerikusirik.

(1) *Hartu nuen zure eskutitza.*

Perpauk honek ez du galdegairik, perpauk osoa informazio berria baita. Baina eskutitz bati erantzutean, beti ordena hau ikusten da: *Hartu nuen, jaso genuen, pozik jaso dut, pozez irakurri dut*, e.a. hasieran joaten dira eta zure eskutitza, *bidali didazun argazkia*, e.a. atzean.

(2) *(Asko) poztu naiz gaur zure eskutitza jasotzean.*

Adibide honetan ere berdin, irakurleari gehien jakinarazi nahi zaiona (*poztu naiz* edo *Asko poztu naiz*) hasieran jartzen da. Eskutitzetan ez ezik, baita hizketan ere, gertatzen da ordena hau.

Patxi Goenagak dio «Dena dela, esan beharko da normalki ez dela aditza joaten perpausaren hasieran» (1978-181). Baina euskaldunak niri idatzi dizkidan eskutitzetan, aditzez hasten diren perpauk pila bat dago. Eta hizketan ere askotan entzuten dut ordena hori. Goenagak berak onartzen du geroxeago *irabazi dugu guk* ordena, honela esanez: «... izan daiteke euskarazko perpausa, *irabazi-ri* pisua emanaz».

(3) *Hori da problema.*

Gauza bera adierazteko *Problema hori da* ere esan daiteke, baina normal-ki *hori da* zatia hasieran jartzen da, gehien jakinarazi nahi den gauza baita.

(4) *Hortxe daukazu* basoa.

Hortxe daukazu da gehien jakinarazi nahi dena.

Euskaltegian ikastaroa amaitzeko afariari buruz hitz egiten ari ginenean, ez nuen ulertu *txikituak edaten* esaera, eta galdetu nion irakasleari: «Zer egingo dugu?» Orduan irakasleak zera erantzun zidan:

(5) *Ibiliko gara* taberna batetik beste batetara, *esnea edaten*.

Gehien jakinarazi nahi zidana *ibiliko gara* zenez, zati hori hasieran jarri zuen. Gero, osatzeko, *taberna batetik beste batetara* zatia ipini, eta horrez gain *esnea edaten* delako informazioa gehitu zuen atzetik. Azkeneko zati hau, ikusten duzuen bezala, txantxetan esaten du, nik tabernetan askotan esnea edaten bait nuen. «Ibiliko gara... beste batetara» esaten ari zenean burura etorri zitzaion «esnea edaten» esatea. Bide batez, *ibili* aditzaren ondoren ez dator *egin*, perpaus osoa informazio berria baita.

(6) *Kanping eder honetan gaude* ikastaro intentsiboa egiten, euskaraz noski!

Eskutitz baten hastapena. *Kanping eder honetan*, galdegaia da, eta galdegai hori daraman aditz sintagma hasieran jartzen da, batez ere hori adierazi nahi baitu idazleak. Gero *ikastaro intentsiboa egiten* zatia, informazio zehatzagoa, eman, eta azkenean *euskaraz noski* informazio are zehatzagoakin bukatzen du.

Ezezko perpaus askotan, aditz-laguntzaile-multzoa [EZ (+ proklitiko) + aditz laguntzailea (edo aditz sintetikoa)] hasieran joaten da, ezetza gehien jakinarazi nahi den gauza delako.

(7) *Ez dator* Maite.

(8) *Ez du* inork erantzun.

Bigarren faktore hau, batez ere galdera eta aginduetan garbi azaltzen den gauza da.

(9) *Gogoratzen duzu* hemen egin genizun «entrebista»?

(10) Ondo doaz guztiok?

(11) *Nahi duzu* argazki bat atera?

Perpaus bakoitzean, galderaren ardatza hasieran doa. Hauek dira bereziki esan nahi direnak.

(12) *Nork* ikusi zuen Maite?

(13) *Nor* ikusi zuen Patxik?

- (14) *Nori* eman dio liburua Patxik?
 (15) *Zer* egiten dugu orain?
 (16) *Noiz* etorriko zara Bilbo aldera?
 (17) *Non* utzi duzu egunkaria?

Galdehitza daraman perpausean (zati galderetan, Wh-question), galdehitz hori hasieran jartzen da sarritan. Galdehitza galdegaia da, noski, eta garrantzi handieneko zatia da galdera hauetan.

- (18) *Idatz* eskutitza, *ikus* pelikula, *deitu* telefonoz.

Perpaus hau hiru aginduz osatua da. Agindu bakoitzean, aditza hasierara pasatzen da, objektua eta adberbioa baino aurrerago. Gauza bera hurrengo adibidean:

- (19) *Hitz egin* ondo euskaraz.
 Cf. Patxik euskaraz ondo hitz egiten du.

Aditza hasierara pasatzean, beste bi elementuek *ondo* eta *euskaraz* ere elkar trukutzen dute. Esannahiaz harreman handiago duten hitzak lekuz ere hurbilago jarri ohi direnez, hitzen ordena aldatzen denean maiz gertatzen da holako «ispilu-irudi fenomenoak».

Japonieraz nola den:

Esan bezala, japoniera, ainuera, koreanoa eta hizkuntza altaikoetan, subjeto, objektu eta adberbioak aditza baino lehenago kokatzen dira, euskararen oinarritzko ordenan (§1) bezala. Lege hau zorrozki betetzen da, batez ere idazterakoan eta hizketa formalean. Lege hau hautsitako perpausa okertzat, ezgramatikaltzat jotzen da.

Hori dela-ta bigarren faktore honek normalki ez du eragiten hizkuntza haietan. Aurrean datozen (1-11) adibideen ordenak normalki ez dira gertatzen hizkuntza haietan.

Hala ere, hizketa informalean, patxadan pentsatu gabe lasterka esatean, holako ordena ere maiz gertatzen da.

- (1) ¹*Tsui-ta-yo,* tegami
 «Heldu da eskutitza
- (2) ¹*(Tomemo)* uresi-katta-yo, kyoo, tegami-o uketot-te
 «(Asko) poztu naiz gaur eskutitza hartzeaz»
- (3) ¹*Sore da-yo,* mondai-wa
 «Hori da problema»

- | | | | | |
|------|---------------------------------------|----------------------------|---------------------------|---------------------------|
| (13) | ^I <i>Dare-o</i>
«Nor | mi-ta-no?
ikusi zuen | Shigeru-wa.
Shigeruk?» | |
| (14) | ^I <i>Dare-ni</i>
«Nor-i | age-ta-no?
eman dio | hon-o
liburua | Shigeru-wa.
Shigeruk?» |
| (15) | ^I <i>Nani-o</i>
«Zer | shi-yoo-ka?
egingo dugu | ima.
orain?» | |
| (16) | ^I <i>Itsu</i>
«Noiz | ku-ru?
etorriko zara | Bilbao-no
Bilbo-ren | hoo-ni.
alde-ra?» |
| (17) | ^I <i>Doko-ni</i>
«Non | oi-ta-no?
utzi duzu | shinbun.
egunkaria?» | |

18 eta 19-ren ordena ez da gertatzen japonieraz.

Hemen beste ohar bat ere egin nahi nuke. Holako ordena ezgramatikalean jarritako perpausak, ahozkatzean ere bi zatitan (edo zati gehiagotan) etenez ematen dira. Esate baterako, *I-an*, lehen zatiak, *Tsui-ta-yo*, perpaus oso baten intonazioa darama, azkeneko silaban doinua igoz, baita ere beste zatiak *tegami* ere bukaerako intonazioa darama, kasu honetan doinua jaitsiz.

Hala eta guztiz ere, erabiltzen dira ordena hauek, eta, nire ustez, ordena hauek sortzen dituen faktorea euskarari ikusten den berbera da, «batez ere adierazi nahi dena hasieran» ipintzekoa, alegia.

Badirudi Hungarieran ere faktore hau ikusten dela, ordena gramatikalak sortzen dituen, gainera. Gauza aztergarria da.

3.3. *Sarrera aurrean*

Informazio nagusiaren aurretik, entzuleari prestapena emateko, beste hitz batzu jartzen dira batzutan, sarrera bezala.

Hiru sarrera mota aipa daitezke.

- i Mintzagaia aditzera emanaz.
- ii Egoera aditzera emanaz.
- iii Hitzaurre gisa.

3.3.1. *Mintzagaia aditzera emanaz*

Zertaz hitz egingo den alde aurretik erakusteko.

(1) *Abizena nola du?*

Izena galdetzeko, *Nola du izena?* ordena erabiltzen da gehienetan, galde-hitza hasieran eta *izena* mintzagaia aditzaren atzean jarritz (§3.2). Baina pertsona bati buruz hitz egiten denean, eta orain batek pertsona horren abizena jakin

nahi duenean, mintzagaia *abizena*-ra pasatzen duela adierazteko, *abizena* hitz hori aurretik esaten du. Nolabait esateko, *abizena* perpaus honen izenburua bihurtzen da.

(2) Eta *igandean*, zer egin zenuen?

Holako galderetan, *Zer egin zenuen igandean?* ordena gertatzen da gehiagotan (§3.2), baina kasu honetan, lehenengo irakasleak galdetzen du «Nola pasatu zenuen asteburua?» eta ikasleak erantzuterakoan, larunbatean egindakoak kontatzen ditu. Gero irakasleak mintzagaia *igandean*-era pasatzen du. *Igandean* da oraingo izenburua. Hori erakusteko da hitz hau galderaren aurretik esatea, *eta* juntagailuaren ondoren.

(3) «*Luze*» ba dakizu zer den ez?



(4) «*Ganoragabe*» ez duzue inoiz entzun?

Luze eta *ganoragabe* hauek ez dira galdegaiak, mintzagaiak baizik. 3, *luzatu* aditza azaltzerakoan esandakoa da: lehenengo *luze* hitza eman, mintzagai, eta gero, horri buruzko galdera egiten du irakasleak.

(5) Ez dakizu zer den «*arraultza*»?

Ez dakizu [zer da «*arraultza*»]-n

4 eta 5, egoera antzekoetan esandakoak dira. 4-an, *ganoragabe* hitzari buruz hitz egingo dela alde aurretik erakusten da, 5-an, berriz, *ez dakizu* zatiak garrantzi handiagoa du hiztunarentzat, eta *arraultza* hitza ikasleentzat nahiko hitz ezaguna denez gero, ez dago alde aurretik izenburu bezala eman beharrik, eta bere lekuan dago.



Ikusten dugun bezala, lehen eta bigarren faktoreak alde batetik, eta hirugarrenak bestetik, kontrako indar modura lan egiten dute hitzen ordena erabakitzeke.



(6) *Toki problemarik ez dago, leku problemarik ez dago, plaza problemarik maila hontan ez dago.*

Cf. Ez dago problemarik.

Galdera bati erantzuterakoan, eta beste pertsona batek esandakoari ihardesterakoan, maiz eragiten du faktore honek. Besteak esandakoaren zati bat jaso eta erantzun edo ihardespen perpausaren aurrean jartzen da, orain gai horri buruz erantzutekoa dela erakusteko.

(7) Nork ikusi du Mikel? —*Mikel Patxik ikusi du.*

(8) Zu irakaslea zara. —Bai, eta *irakaslea jaten dago.*




(9) *Hirugarren garaia* oraindik ez da inoiz egin.

(10) *Hitz egiteko* beharbada egongo da kurtso bat.

Mintzagaia ez da beti aurrean jartzen: izenburua bezala ematerakoan bakarrik joaten da esaldi aurrean.


(11) Nor ikusi du *Patxik*?

(12) *Patxik* nor ikusi du?



Hurrengoak, de Rijk 1978-tik jasoa:

(13) *Sendagille ori, nere anaiak uste du oso ona dala.* (Gipuzkoa).



Japonieraz:

- | | | | | |
|-----|------------------------------|-------------------------------------|-------------------------------|------------------------------------|
| (1) | <i>Myooji-wa</i>
«Abizena | <i>nan-te</i>
zer dela | <i>i-u-no?</i>
esaten da?» | |
| (2) | <i>Sore-de</i>
«Eta | <i>nichiyoobi-ni-wa</i>
igandean | <i>nani-o</i>
zer | <i>shi-ta-no?</i>
egin zenuen?» |

1 eta 2, ordena normala da japonieraz (eta ainueraz, koreanoz, mongolieraz, ...) §3.2-an ikusi dugun bezala, *Nola duzu izena?* edo *zer egin zenuen igandean?* bezalako ordena aldaketa ez da gertatzen perpaus gramatikala egiteko.

Wa mintzagai marka da baina mintzagaiak ez du beti *wa* eramaten:

- | | | | | | |
|-----|--|-------------------------------|--------------------------------------|--------------------------------|--------------------------|
| (3) | « <i>Nagai</i> »-tte
'«Luze» | <i>nan</i>
zer | <i>da-ka</i>
de-n | <i>shit-te-ru</i>
ba dakizu | <i>deshoc?</i>
ezta?» |
| (4) | « <i>Otchokochoi</i> »-tte
'«Ganoragabe» | <i>kii-ta</i>
entzun duzun | <i>koto</i>
aldi | <i>nai?</i>
ez dago?» | |
| (5) | ^l <i>Shira-na-i-no?</i>
'Ez dakizu | <i>nan da-ka</i>
zer de-n | <i>«tamago»-tte.</i>
«arraultza?» | | |

Zuzen esateko:

- (5-1) «Tamago»-tte nan da-ka shira-na-i-no?
«Arraultza»? zer de-n ez dakizu
- (6) *Basho-no* mondai-wa na-l, *seki-no mon-* na-i,
dai-wa
«*Toki* problemarik ez dago, leku problemarik ez dago»,
aki-no mondai-wa kono reberu-de-wa na-i.
plaza problemarik hau maila-an ez dago.
- (7) ^IDare-ga mi-ta-no? Hiroshi-o. –*Hiroshi-wa* Shigeru-ga mita.
«Nork ikusi du Hiroshi? –Hiroshi Shigeruk ikusi du»

Lehen zatia (galdera) zuzen esateko:

- (7-1) Dare-ga *Hiroshi-o* *mi-ta-no?*
«Nork Hiroshi *ikusi du?*»
- (7-2) *Hiroshi-wa* dare-ga *mi-ta-no?*
«Hiroshi nork *ikusi du?*»
- (8) Anata-wa sensei da. –Un, soshite *sensei-wa* tabe-te i-ru.
«Zu irakaslea zara. Bai, eta irakaslea ja-ten dago».
- (9) *Daisan-* mada yat-ta koto-ga na-i.
jookyuu-wa
«Hirugarren oraindik egin den aldi ez dago».
garaia
- (10) ^I*Hanasu-no-ni-* tabun ar-u deshoo, koosu-ga.
wa
«Hitz egiteko beharbada egongo da kurtsoa.»

Gramatikalki esateko:

- (10-1) ^I*Hanasu-no-ni-* tabun koosu-ga ar-u deshoo.
wa
«Hitz egiteko beharbada kurtsoa egongo da».
- (11) ^IDare-o mi-ta-no, *Shigeru-wa?*
«Nor ikusi du Shigeruk?»
- (12) *Shigeru-wa* dare-o mi-ta-no?
«Shigeruk nor ikusi du?»

(13)-ren ordena ez da gertatuko lagun arteko elkarrizketa informalean ere.
Baina honako hau gertatuko da:

- (13-1) *Sono isha-wa, watashi-no ani-wa totemo i-i-to* omot-te ir-u.
 «Hori sendagile, nire anaiak oso ona de-la» uste du.

Oinarrizko ordena:

- (13-2) *Watashi-no ani-wa, sono isha-wa totemo i-i-to* omot-te ir-u.
 «Nire anaiak hori sendagile oso ona de-la» uste du.

Japonieraz ere, euskaraz eta beste hizkuntza askotan bezala, mintzagaiak askotan perpausaren hasieran du lekua, eta euskaraz baino gehiagotan, ia beti, alegia (Gonbaratu (11) eta (12)).

Horrez gain japonierak (ainuerak, koreanoak, mongolierak,...) mintzagai marka badu: *wa* partikula, eta Japoniako transformazionalistek esan ohi dute *wa* daraman sintagma *topic* (mintzagaia) dela, eta hau perpausaren hasierara aurreratzen (fronting) dela. Noda-k (1982) dio gaztelaniaz (SVO hizkuntza berau) eta japonieraz (SOV hizkuntza) berdin gertatzen dela *fronting* hau, horregatik hizkuntzaren unibertsal bat izango dela.

Ikuspegi honek zuzena dirudi. Baina, ikusi dugunez, euskaraz mintzagaia ez da beti hasierara pasatzen.

Euskaraz, izena eta adberbioa ez ezik, baita aditza ere mintzagai izan daiteke. Idazterakoan baino mintzatzerakoan maizago gertatzen da hori. Mintzagai denean, aditz horrek doinu berezia darama, hots, azkeneko silaba luzatu eta doinua igoten da.

- (14) *Problema da*, alderantziz, ez dagoela jenderik talde bat egiteko.

- (15) *Hau da Patxi, hau da Mikel*.

- (16) *Maite iritsiko da* Abuztuaren 23an.

Adibide hauetan, galdegaia aditzaren atzean (ez aurrean!) doa. Subjetua ez ezik, aditza ere honekin batera, mintzagaia bihurtu eta aurrean ematen da izenburu gisa, galdegaia preludiatuz.

- (17) Gauza bat garbi dago, eta *da* ez zaretela kalean geratuko.

(17) bezalako ordena, *da* aditz sintetikoaz hasten dena, elkarriketan sarritan entzuten dut, *dira-z* hasten dena ere batzutan; berbaldiaren barruan (ez hasieran) gertatzen da. Baina idatzian ez dut inoiz ikusi. Beste aditz sintetikoaz (*dator, doa,...*) hasten denik ez dut inoiz entzun.

§2.4 an ikusi dugun *Uste dut Patxik Maite ikusi zuela* (5) edo *Koldok esan du Patxik joan zen ostiral arratsaldean...* 14 bezalako adibideak ere hemengo hauen kideak dira, hots, *uste dut* (5), *Koldok esan du* (14), [subjektua + galdegai hustua + aditza], mintzagaiak dira adibide hauetan ere.

Japonieraz (eta ainueraz, koreanoz, mongolieraz,...) aditz sintagma, dagoen dagoenean, ezin daiteke mintzagaia izan. Mintzagaia bihurtzeko, egitura aldatu behar da:

- | | | | | | | |
|------|--------------------------------|------------------------------------|-----------------------------|------------------------------------|-----------------|-------|
| (14) | <i>Mondai-wa,</i>
Problema, | gyaku-ni,
alderantziz, | hitokurasu-ni
bat talde | nar-u
egin | hodo
bezain | beste |
| | hito-ga
jende | i-na-i-to
ez dagoe-la | i-u
esateko | koto
arazoa | da.
da. | |
| (15) | <i>Kochira-wa</i>
«Hau | Shigeru,
Shigeru, | <i>kochira-wa</i>
hau | Hiroshi.
Hiroshi.» | | |
| (16) | <i>Aiko-wa</i>

Aiko | hachigatsu

Abuztua | nijuusanni
chini
23an | tsuk-u.

iritsiko | da.

da. | |
| (17) | Hitotsu-no
«Bat | koto-ga
gauza | hakkiri
garbi | shi-te
dago, | i-ru-
hori.» | |
| | anagata-wa
zuek | oidasare-ru
kanpora bota-
ko | koto-wa | na-i-to
ez zaituztete la
da. | i-ukoto | da. |

§2.4-ko (5)

Watashi-no «Ni-re	kangae-de-wa, uste-z,	Shigeru-wa Shigeruk	Aiko-c Aiko	mi-na-katta-yo. ikusi ez zuen.»
----------------------	--------------------------	------------------------	----------------	------------------------------------

§2.4-ko (14) Tamotsu-wa koo it-ta, Shigeru-wa senshuu-no kin yoobi-no gogo...
«Tamotsuk honela esan du, Shigeruk joan zen ostiral arratsaldean...

3.3.2. Egoera aditzera emanaz

(1) *Klasea bukatutakoan*, zerbait edatera joango gara.

(2) *Praktikarik ez badago*, gauzak ahantzi egiten dira.

(3) *Aurten lan berrian nago*.

(4) *Ikastaro hori egin ondoren*, maixuek azterketa bat egin behar dute eta *gaintutuz gero* eskoletara sartzen dira haurrei euskara irakats diezaieten.

(5) *Nahi baduzu* bakoitzari japonesezko izena ipiniko diogu.

Egoera (denbora, lekua, baldintza, e.a.) ez da beti hasieran kokatzen, batzutan bukaeran, beste batzutan erdian. Entzuleari (irakurleari) informazio nagusia entzuteko prestapena eman nahi denean jartzen da hasieran.

Ikus beste adibide bat:

(6) *Nahi duzunean* etorri.

Adibide honetan, *nahi duzunean* galdegaia da.

Hurrengoa: ikasle batek «Ikusi ahal dut?» galdetu zuen. Irakasleak erantzun zion:

(7) *nahi baduzue* ikusi, baina *lehenengo egin* ikusi gabe, eta gero, ba, *adibidez*, hamar egiten dituzue, ba beste hamar begiratu *nahi baduzue* baina...

Adibide honetan, lehenbiziko *nahi baduzue* ez da «egoera aditzera emanaz», galdegaia baizik. *Lehenengo* hori, bigarren perpausako mintzagaia da. *Egin ikusi gabe* agindu bat da, eta *egin* aditza hasieran jartzen da. *Adibidez* hori, «hitzaurrea» (§3.3.3), eta bigarren *nahi baduzue* hori, «atzetik gehitzen» da (§3.2). Bi *nahi baduzue* hauek, doinua ere ezberdina dute.

3.3.3. *Hitzaurre gisa*

(1) *Esan zenigun lez*, berehala bidaltzen dizkizut inkestak.

Bi adiskideri idatzitako nire eskutitzari erantzuten dio batek.

Esan zenigun lez hori, hitzaurrea bezala informazio nagusiaren aurrean jartzen da. Gero, hasieran, *berehala bidaltzen dizkizut* aditz sintagma dator, *berehala* galdegaia daramala (§3.1), eta *inkestak* objetua geroago, bigarren faktorearen ondorioz (§3.2).

(2) *Zure liburu eskaerari erantzunez*, bihar bertan bialduko dizkizuegu liburu guziak zortzi paketetan, eskatutako hamabi fakturak barnean doazela. (Gipuzkoa).

Informazio nagusian, *bihar bertan bialduko dizkizuegu* (aditz sintagma) hasieran doa, *liburu guziak* (objetua) baino lehenago; gero *zortzi paketetan* eta *eskatutako hamabi fakturak barnean doazela* bi informazio gero eta zehatzagoak ematen dira (§3.2).

(3) *Zure bigarren galderari erantzunez*, posible da etxe hontako administrazioak adierazi didatenez, egunkari hau zuen Institutora airez bidaltzea. (?).

(4) *Hontaz kanpo* jendeak zer komentatzen du gure herriaz eta zuk zer pentsatzen duzu? (Guipuzkoa).

(5) *Gero* giroa ere ez da oso ona eskoletan, zeren giro oso erdelduna dago eta umeak ez dute ikusten euskera ikastea beharrezkoa denik kalerako. Cf. *Gero* esango dizut (*Gero*: galdegaia).

(6) *Bestalde* oso pozik gaude egun hauetan euskal irrati eta telebista martxan jarri dituztelako.

(7) *Dana dala*, esan behar da «autonomia»-rekin irakaskuntza euskal gobernuaren eskuetan dagoela eta planifikazio nahiko ona egiten ari direla.

(8) *Dena den*, ahaleginak egingo ditugu zuentzako ale bat eskuratzen baina... (Gipuzkoa).

(9) *Egia esan*, metodoa kasetan batetan kabitzen da.

(10) *Izan ere*, eskutitz hori oso urrundik dator, Japondik, alegia, *eta gainera* japoniar emakume batek euskeraz idatzia,... (Gipuzkoa).

Holako hitzaurrea informazio nagusiaren aurrean ipintzea, euskaraz eta japonieraz (eta ainueraz, koreanoz, mongolieraz,...) ez ezik, beste hizkuntzetan ere berdin gertatzen da. Guztiz fenomeno naturala eta unibertuala da. Beraz, hemen zehazki aztertu beharrik ez dagoela uste dut.

4. Laburbilduz

(1) Ordena konkretua sortzeko hiru mailatako faktore daude:

- I Oinarrizko ordena
- II Egitura mailako ordena– aldaketa
- III Estilistika mailako ordena– aldaketa
 - i Galdegaia aditzaren aurrean
 - ii Batez ere adierazi nahi dena hasieran, osatzekoa gero, gehitzekoa atzean
 - iii Sarrera (mintzagaia, egoera, hitzaurrea) aurrean.

(2) Oinarrizko egiturari, euskaraz eta japonieraz (baita ainueraz, koreanoak, mongolieraz... ere) hitzen ordena ia berdina dute.

(3) Egitura mailako nahitaezko ordena-aldaketa, euskaraz inoiz gertatzen da baina japonieraz (ainueraz...) ez dugu.

(4) Estilistika mailako ordena aldaketa bietan gertatzen da. Ezberdintasun batzu aurkitzen badira ere, funtsean aldaketa erregela antzekoak dituzte biek.

(5) Estilistika mailako hiru ordena-aldaketa faktoreetatik, hirugarrenak (sarrera aurrean) alde batetik eta lehenak (galdegaia aditzaren aurrean) eta bigarrenak (garrantzitsuena hasieran) bestetik, alderantziz lan egiten dute, elkarren kontrako indar gisa.

Hizkuntza batzutan, hirugarrenak indar gehiago du (gaztelaniaz, ingelesez,...² Eskimalez) eta beste batzutan lehenak eta bigarrenak (euskaraz, hungarieraz). Japonieraz, ainueraz, koreanoz eta hizkuntza altaikoetan, lehenak (galdegaia aditzaren aurrean) indar gutxi du, eta bigarrenak baino indar gehiago hirugarrenak.

² SVO hizkuntza hauek ez dituzte lehen eta bigarren faktoreak. Badirudi alderantzizko edo ispilu-irudiko faktoreak dituztela. Aztertu behar da.

Azkenik, eskerrak eman nahi nizkieke kongreso honetara gonbidatu nauen Euskaltzaindiari eta euskara ikasten lagundu nauten irakasle, adiskide eta informatzaileei. Batez ere izen batzu azaltzea beharrezkoa da: nire irakasle eta zuzendari J.M. Satrustegi jauna, Endrike Knör, Patxi Goenaga eta Koldo Aldalur. Haien laguntza gabe, ezin izango nukeen lan hau bukatu.

Bibliografia (aipatutako lanak)

- AKESOLO, Lino, «Galdegaiarekiko aztergai bat edo beste», *EUSKERA*, XXV-2, 1980.
- ALTUBE, Sebero, *Erderismos*, Bermeo, 1929¹ Bilbao, 1975.²
- AREJITA, Adolfo, *Euskal Joskera*, Durango, 1980.
—, «Aditzaren galdegaitasunaz», *EUSKERA*, XXV-2, 1980.
- DONZEAUD, Françoise, «The expression of focus in Basque», *Anuario del Seminario de filología vasca «Julio Urquijo»*, VI, 1972.
- GOENAGA, Patxi, *Gramatika bideetan*, Donostia, 1978,¹ 1980.²
- HOTTA, Satoshiro, «Basukugo no tambun ni okeru gojun no buntaiteki kachi ni tsuite (Hitzen ordenaren balio estilistikoa euskarazko perpaus bakanen)», *Joosai Jimbun Kenkyuu*, 2, Joosai Univ., 1975.
Irakasle talde batek, *EUSKALDUNTZEN*, 3, Bilbao, 1973.
- IRIGOYEN, Alfonso, «Sebero Altuberen Galdegaitasunaz», *EUSKERA*, XXV-2, 1980.
- IZUI, Hisanosuke, *Sekai no gengo (Munduko hizkuntzak)*, Tokyo, 1972.
- MITXELENA, K, «Galdegaia eta mintzagaia euskaraz», *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Univ. de Deusto, 1981.
- NODA, Hisashi, «Goju no genri (Hitzen ordenaren printzipioa)», Japoniako Linguistika Kongresoan egindako komunikazioaren laburpena, *GENGO KENKYUU Journal of The linguistic Society of Japan*, 82, 1982.
- DE RIJK, Rudolf P. G., «Is Basque an S.O.V language?», in *Fontes Linguae Vasconum*, 3, 1969.
—, «Relative Clauses in Basque: a guided tour», *The Chicago which hunt*, Chicago, 1972.
—, «Topic fronting, focus positioning and the nature of the verb phrase in Basque», Frank Jensen (ed.), *Studies in fronting*, Lisse, 1978.
- TAMURA, Suzuko, «Report of The Study Group on Northern Languages and Cultures», 7, *Bulletin of The Institute of Language Teaching, Waseda University*, 23, 1981.

«Basukugo no gojun ni tsuite (Word order in Basque, Hitzen ordena euskaraz), 1», *Bulletin of The Institute of Language Teaching, Waseda University*, 26, 1983.

TXILLARDEGI, *Euskal gramatika*, San Sebastián, 1978.

WILBUR, Terence H., «Basque syntax», *IKER*, 1, Bilbao, 1981.